

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2011KO URRIAREN 21EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2011ko urriaren 21eko goizeko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez (O.E. BILDU) alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M^a Diez Gabilondo
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Jon TXASKO ORGILLES
- Garazi López de Echezarreta Auzmendi
- Irune Balenciaga Arrese
(Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- José Manuel Ferradás Freijo (EE)

Bertan dago, Egintzaz fede emateko, Francisco Javier Lesca Ezpeleta idazkari jauna.

1. Gobernu Batzarrak 2011ko urriaren 7an eginiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2011ko urriaren 7an eginiko ohiko bilkuraren akta irakurritakoan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea 2011ko urriaren 7an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

2. “Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorra zerbitzua emateko (II. loteko mugikorra)” kontratuaren esleipena.

Udalbatzak 2010eko irailaren 24ko harturiko erabakiaren bidez espedientea abian jarri zen, prozedura irekiaren bitartez (hainbat irizpide), “Errenteriako Udalaren Telefonía finkoa eta mugikorra” izeneko zerbitzua kontratatzeko.

Proposamenak egiteko epean bost (5) egin dituzte, hain zuzen ere “TELEFONICA MOVILES ESPAÑA, S.A.”; “EUSKALTEL, S.A.”; ”VODAFONE ESPAÑA, S.A.U.” “TELEFONICA DE ESPAÑA, S.A.U.” eta “FRANCE TELECOM ESPAÑA, S.A.” enpresek.

2010eko abenduaren 1ean plikak irekitzeko ekitaldia egin zen.

2011ko maiatzaren 6ko Tokiko Gobernu Batzarrak TELEFONICA MOVILES DE ESPAÑA, S.A.ri esleitu zion “Errenteriako Udalaren telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua emateko kontratua. II. lotea: telefono mugikorra” delako kontratua.

VODAFONE ESPAÑA, S.A.U.k Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bidezko organoan helegite berezia tarteratu ondoren, organo horrek ebazpena eman du Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko maiatzaren 6an hartutako akordioa indarrak gabe utziz. Gainera, Gobernu Batzarrari proposatzen dio akordio berri bat hartzeko kontratuaren esleipendun VODAFONE ESPAÑA, S.A.U. izateko.

2011ko irailaren 16an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Juan Antonio Gomara Arroyo-ri, "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U."ren izenean, – "Errenteriako Udalaren telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua emateko kontratua. II. lotea: telefono mugikorra" kontratuaren proposaturiko esleipenduna–, eskatzea hamar (10) laneguneko epean lizitazio arautu duten baldintza-agiriaren 5. klausulan adierazitako dokumentazioa ekartzeko.

Interesatuak 2011ko urriaren 5ean eskaturiko dokumentazioa ekarri zuen, eta 1.207,62 euroko fidantza jarri zuen.

Kontratazio-mahaiko buruak proposatuta.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKIDU

1.- Juan Antonio Gomara Arroyo jaunari, "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U."ren izenean, esleitzea "Errenteriako Udalaren telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua emateko (II. lotea: telefono mugikorra)" kontratua, betiere lizitazioa arautu duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirien arabera, hala nola esleipendunak prezio unitarioetan eginiko eskaintza, espedientean jasota dagoena, aintzat hartuta.

2. Erabakiaren berri ematea esleipendun suertatu ez diren guztiei.

3.- Esleipendunari eskatzea 10 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua administrazio dokumentuan sinatzera.

4.- Kontratuaren esleipena argitaratzea Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean iragarkia ipinita.

5. Alkatea espresuki ahalmentzea administrazio kontratua sinatzeko.

3. Auto-taxi udal lizentzia, 28 zk.koa, eskualdatzeko eskaera.

Udalbatzak 1983ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran 28 zk.ko Auto-taxiaren udal lizentzia ustiatzeko baimena eman zion **ELOY AIRA VAZQUEZ** jaunari.

2011ko irailaren 14an ELOY AIRA VAZQUEZ jaunak **PEDRO JOSE OTEGUI ITURBE** jaunari 28 zk-dun lizentzi hori eskualdatzeko eskaera egin zuen.

LEGE OINARRIAK

1. Auto-Taxi Zerbitzuko Udal Araudiaren 14. artikuluko d) atalean lizentziaren eskualdaketa aurreikusten da baldin eta berorrek bost urte baino gehiagoko antzintasuna badu, eta interesa duen pertsonak betetzen baditu gidatzeko udal baimena lortzearren gaitasun probetara deitua izateko ezarritako baldintza guztiak.

Kasu honetan, lizentziadunak bost urte baino gehiagoko antzintasuna du, eta eskualdaketa egiteko proposaturiko pertsonak betetzen ditu Araudiaren 30. artikuluan ezarritako baldintzak, hots:

- B2 (egun BTP) edo goragoko gidatzeko baimenaren jabe izatea, Trafikoko Buruzagitzak emana.
 - Lanean normal jarduteko eragotziko dion eritasun infekzio-kutsakorrik edo fisikorik edo psikikorik ez edukitzea

Udal Aholkulari Juridikoak 2011ko irailaren 27an egin du aldeko txostena 28 zenbakidun taxi lizentzia Pedro José Otegui Iturbe jaunaren alde esku aldatetari buruz.

Hori guztiagatik, Udal honetako Alkatezak 2011ko uztailaren 7an dekretu bidez eskuordetutako eskumenak baliatuz,

Trafiko eta Garraioko ordezkariaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- Baimentzea 28 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udal lizentziaren eskualdaketa **PEDRO JOSE OTEGUI ITURBE** jaunaren alde **NAN 15.934.134-X** zenbakiarekin, egungo titularra ELOY AIRA VAZQUEZ NAN 33.767.179-M zenbakidun jauna izanik.

2.- Auto-taxi eta beste alokairuzko ibilgailuen lizentziak eta baimen administratiboak emateagatik tasa ezartzen duen Ordenantzak araututakoaren arabera dagozkion udal zergak ordaindu beharko da.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego

Autonomoko paper ofizialean, _____ zenbakitik _____ ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.